



Goierri Birzikir herri plataformak aurkeztutako mozioa

BIRTZIKLAPENAREN ALDEKO ETA LURPE ZABORTEGIAN HIRI HONDAKIN NAHASIAK JASOTZEKO ERABAKIAREN AURKAKO MOZIOA

Udal honek, bere ezezkorik irmoena adierazten dio GHK-k Ferrovial enpresak kudeatutako Mutiloako Lurpe zabortegira Gipuzkoako hiri hondakin nahasiak eramateko erabakiari. Honek, urtero 102.000Tn hondakin isurtzea aurreikusten du.

Honek zuzeneko eta berehalako eragina izango luke, besteak beste, Ormaiztegiko herri-gunetik barrena igarotzen den trafiko astunean, Mutiloako bide berdean eta Gabiriako lautada zabalenean.

ARRAZOIEN AZALPENA

Ezezko honen oinarrian aurrez ere **oso zigortua den zonaldea** izatea, **mankomunitateen artean erantzukizuna ez partekatzea**, eta zabortegiak **sarbiderako duen azpiegitura gabezia** egongo lirateke.

Ingurumen inpaktuari dagokionez, lur hauek dagoeneko gertutik jasaten dute Sasieta zabortegia (4km-ra), osasun publikoarentzat oso arriskutsuak diren lohi eta hondakinak dauzkan Troia meategi zaharreko urtegia (400m exkaxera); hondamendi kasuan inguruko herritarren ebakuazio-plan bati lotua izanik. Lurpe zabortegiak berak urtean 200.000 tona hondakin industrial jasotzen ditu gaur egun. Bi zentral elektriko 5km-ren barruan eta Goi Tentsioko linea baten proiektua 500m-ra. Ingurugiroarentzat eta osasun publikoarentzat jasangaitzak dira bestela ere gaur egun eta **erakunde publikoek herritarren eskubideen alde egiteko betebeharra dute eta ez hauek urratzeko**. Badakigu mota honetako zabortegiek arazo asko sortzen dituztela, bai osasunean baita ingurumenean ere: usain txarrak, arratoi eta hegaztien ugaritzea, metanoa, lurraren okupazio handia, errekek eta akuiferoak kutsatzeko arriskua duten lixibiatuak...

Zabortegi honetara iritsiko liratekeen urteroko 102.000Tn-k, **Gipuzkoako mankomunitate guztietan sortzen dira**, eta hauek ezin dezakete beraien ardura ekidin eta herrialdeko birziklatze tasa handienetakoa, eta beraz, zabor nahasi gutxien sortzen duen eskualde batera bidali. Mankomunitate hauek guztiek izan behar dute era adostu, partekatu eta erantzunkidetasunez arazoari konponbidea eman behar diotenak. **Konponbide publikoa behar duen arazo publikoa da.**



Goierri Birzikir herri plataformak aurkeztutako mozioa

Erabaki honek, Gipuzkoa mailan birziklatzen edo konpostatzen ez diren hondakin guztietatik (165.000 Tn inguru) gehienak Mutiloan isurtzea ekarriko du, **inongo tratamendurik eman gabe**. Urtean 102.000 Tona zabor (hondakin nahasi) baino gehiago ekarriko dira gure eskualdera, Goierriin 8.600 Tona errefus sortzen ditugun bitartean.

Solidaritatez jokatu beharko genukeela ere entzun dugu batzuen ahotan, eta hain justu ere solidaritatea da guk eskatzen duguna, hau da: "norberak bere etxean ahal duen guztia egitea beste batzuk kaltetuak izan ez daitezen". Izan ere, **Gipuzkoan batz bestea biztanleko 19kg botatzen dira hilero zabortegietara. Hiru herri kaltetuenetan berriz, biztanleko 5,7kg**. Gipuzkoa osoan birziklapen maila berdina lortuko balitz, gauzak oso bestelakoak izango lirateke eta ez genuke zabortegi kutsakorren beharrik izango.

Esleitu nahi den zabortegiak bere sarbidea Ormaiztegiko hiribildutik dauka, honek bizilagunen segurtasunean eta bizi kalitatean daukan inpaktuarekin. Hau ezin da onartu XXI. mendeko Gipuzkoan, zeinek urteak daramatzen bide sareak berritzeko ahaleginean, bere biztanleen bizi kalitatea hobetzeko bidean.

Hau guztia kontuan izanik, Zaldibia ko Udalak

ESKATZEN DU:

1. G.H.K.-ren aldetik, Lurpe zabortegiaren aldeko esleipen prozesua **berehala gelditzea**.
2. Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen sailaren esku-hartzea, **presazko deialdi batez mankomunitate guztiak deitu**, eta lan-mahai bat eratu dezala, hondakinen kudeaketa arazoari **konponbide partekatu, arduratsu eta presazkoa eman**ez.
3. **Ferrovial taldeak, borondatez uko egin diezaiola kontratua sinatzeari**. Erabaki hau, zuzenki kalteturiko Mutiloa, Ormaiztegi eta Gabiria eta eskualdeko gainontzeko herrietako biztanleen **gaitzespen irmo eta aho-batezkoan** arrazoitu behar da.



Goierrri Birzik herri plataformak aurkeztutako mozioa

KONPROMISO HAUEK HARTZEN DITU:

1. Talde politiko ezberdinen arteko akordioa gauzatzeko ahaleginak egingo ditugu, ondoren mezu bateratu bakarra herritarrei helarazteko: **etxeetako hondakinak behar bezala sailkatzea derrigorrezkoa da.**
2. **Gehienez, hilabetean pertsonako 5,8Kg errefusa sortzea** ziurtatuko duen bilketa sistema eraginkorra bermatuko dugu herrian, horretarako beharrezko diren bitartekoak erabiliz. Neurria, Gipuzkoa guztian ezarriz gero, urtero sortzen den **errefusa kopurua 165.000Tn-tik 50.000Tn-ra jaitziko litzatekela.**
3. Eraitza horiek etengabe **hobetzen jarraituko dugu.**
4. Herri mugimenduekin adostutako mobilizazio eta ekintza ezberdinei **atxikimendua** emango diegu.

Zaldibia n, 2016eko azaroaren 3ean